

Akitaniera eta euskara

Joakin Gorrotxategi

UPV/EHU

Laburpena

Lan honetan akitaniera eta euskara historikoaren arteko harremanak aztertzen dira, ez bakarrik komunean dituzten ezaugarriak baizik eta kognadoetan bakoitzak erakusten dituen ezberdintasunak ere. Guztia Antzinarako egoera dialektaletik Erdi Arora bitartean gertatu zen bilakaera bateratzaile baten barruan kokatzen da. Eztabaidan material epigrafiko berria eskaintzen da.*

0. Ikertzaile eta aditu guztiek onartzen dute akitanierak eta euskarak elkarren artean partekatzen dituzten ezaugarriak hain estuak direla, non lehen-dabizikoa bigarrenaren fase edo aldi zahar gisa har daitekeen, edo gutxienez biak hizkuntza familia bateko hurbileko kide. Komunean dituzten ezaugarri horiek, bestalde, urrutiko zein hurbileko hizkuntzetatik bereizten dituzte, nabarmenki inguruko zeltiarretik (zeltiberiera edo galieratik) eta, puntu lauso batzuk salbu, baita iberieratik ere.

Aipatu oharpenak, hizkuntzalaritza konparatzailearen metodoen ondorioak direnez, soilik lortzen dira ustezko ezaugarri komunak azaleko antzekotasuna gaindituz kognadoen mailara iristen direnean, hau da, hizkuntzalararen iritziz hizkuntza bien arteko parekotasunek jatorri berbera izateari zor diotenean antzekotasuna eta ez beste edozein arrazoiri. Kognadoak ezartzerakoan hizkuntzalari guztiak askotan ez datoz bat eta oinarritzko desadostasun honek ondorio larriak izaten ditu gehienetan hizkuntza familiak sailkatu eta hizkuntza horien bilakaera historikoa azaltzeko orduan. Hizkuntzalaritza konparatzailearen eginkizuna hizkuntzak erkatzea da, beren artean kognadoak identifikatuz eta metodo ezagun batzuk aplikatuz hizkuntza horien arteko erlazio genetikoak azaldu ahal izateko. Baina askotan hizkuntzalariek konparazioetan erabiltzen duten gaia ez da *izatez* hizkuntza, baizik hizkuntza

* Lan hau ondorengo proiektuen barne egin da: Espainako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministeritzaren FFI2012-36069-C03-01, Eusko Jaurlaritzaren «Lingüística histórica e historia de la lengua vasca» [GIC.IT698-13] Ikerketa Talde Konsolidatua eta EHUn UFI11/14.

baten ondarra, aztarna edo isla. Hauxe da gertatzen dena, hain zuzen, hizkuntza ezagun baten testuen orde, hari zuzen edo oker esleitzen diogun izen, toponimo eta antzeko materiala erabiltzen dugunean konparazio lanetan, edo testuak ondo dokumentatuta egon arren haien esanahia ez dakigunean edo orokorrean oso ilunak suertatzen zaizkigunean, iberieraren kasuan bezala. Halakoetan azaleko antzekotasuna egiazko eta jatorrizko egokitasuntzat hartzeko arriskua oso handia da, eta eskarmentuzko hizkuntzalariak ere ez daude beti peril horietatik libre. Azken urteotan gure artean nahiko ospe hartu duen obra bat besterik ez aipatzearen, Villar-ena (2014) aipa genezake konparazioari eskakizun gutxi eskatzen diotenen artean.¹ Euskara eta iberieraren arteko ahaidetasunari buruzko hipotesiak —aspalditik datozenak— azken urteotan berpiztu edo indartu dira parekotasun deigarriak aurkitu omen dituztelako iberiera eta euskararen zenbaki sistemen artean² nahiz eta aurkitutako antzekotasun horrek ez digun oraino batere lagundu ondo irakurtzen diren iberiar testuen esanahia argitzen. Konparazio mota bi hauek zilegitasun arazo larri bat dute, bietan erkaketa formen zentzua jakin gabe egiten delako. Toponimo eta izen propioen kasuan zentzuaren falta normala izaten denez, hizkuntzalariak gaiaren esparrua —hau da, formek azaleko antza erakusteko duten joera estadistikoa— mugatu behar du mota diferenteko eskakizun zorrotzen bitartez. Beste modu batera esateko, hizkuntzalariak perretxiko biltzaile baten antzera nahiago izango du erdipurdizko edo pozoinezko perretxikoz beteriko zorro handi baten orde onddo gozoz eta finez osaturiko otartxoa.

1. Akitanieraren eta euskararen arteko konparazioa izen propioetara mugatzen den arren, aintzakotzat hartzen da, hasieran esan bezala, materialak berak askotariko informazioa eskaintzen duelako (soinuen kopurua eta distribuzioa, izen osagaien jokabidea, pertsona izenen sexuarekiko lerraketa, hedapena bera, eta abar), neurri batean behintzat esanahiaren falta berdindu dezakeena. Akitaniera eta euskara elkar batzearen funtsa *Sembe-*, *Seni-*, *Gizon*, *Belex/Bels-*, *Hanna-*, *Andoss-* (guztiak gizonezkoen) eta *Andere*, *Necato* (biak beti andrazkoen) izen propioetan oinarritzen da,³ egokitasun horiek soilik hizkuntza bi horien artean gertatzen direlako beste inorekin partekatu gabe.⁴ Barneko muin

¹ Villarrek azalean berdinak edo antzekoak diren toponimoak normalean kognadotzat hartzen ditu, lekuizun horien transmisioari edo lekuen beren kokapenari batere erreparatu gabe, esaterako, penintsulako *-il* osagaia duten toponimoak alde batetik eta Mesopotamiako *Bab-il(onia)* ezaguna bestetik (Villar 2014:134hh) konparatzean. Ikus metodoari egin nion kritika (Gorrotxategi 2008).

² Ikus, batez ere Orduña (2011, 2013) eta euskararen aldetik Lakarrak (2010) eginiko kritika.

³ Balio handikoak dira oin horiek gehitzen zaizkien atzizkiak, *-co*, *-xo*, *-to* esaterako.

⁴ Caro Barojak, Mitxelenak eta nik neuk zerrendatu dugu inoiz akitanierak eta iberierak komunean izan zitzaizketen izen osagaiak, baina zerrenda horiek ez dute inoiz lortu eusko-akitaniar erakusten duen sendotasuna. Geroago (Gorrotxategi 2013: 59-60), konparazioa egitean azaleko antzekotasunen bila ahalegindu beharrean izen sistemek duten desberdintasunari erreparatzen zaionean, ikusten da ak. *Belex* eta ib. *beles* direla ia antzeko forma bakarrak; iberierak ez du inolaz ere goian aipatutako eusko-akitaniarazko izenen arrastorik.

sendo horretatik abiatuta, hizkuntzalariak zilegitzat joko du horrenbesteko segurantzak erakusten ez duten bikoteak kognadotzat hartzea, ak. *Aher*:- eusk. *akher*, ak. *Arixo*:- eusk. *haritz*, esaterako. Hori izan da Luchaire-rengandik (1877) hasita Caro Barojak, Mitxelenak (1954), Lafonek (1956) eta nik neuk (1984) erabili dugun bidea: akitanierazko formak azaldu izan dira euskara historikoan —hau da, Erdi Arotik eta batez ere XVI. mendetik aurrera dokumentatutakoan— ezagutzen diren hitzen, erregelen eta bilakaearen arabera, berreraiketa klasikoaren bitartez lor zitezkeen forma seguruak ere baztertu gabe. Konparazio lan honetan euskarak hartu du bere gain probaren karga gehiena, normala denez, akitaniera delako hain zuzen azaldu behar den alde iluna. Honek ez du esan nahi akitanierak beti jokatibide pasibo bat hartzen duela ekuazioari ezer berririk edo interesgarririk eskaini gabe. Adibide klasikoa aipatzearen, ak. *Seni*- : eusk. *sehi*, *sein* egokitasunean akitanierazko formak azaltzen ditu hain zuzen euskazko aldaerak:

- (1) ak. -VnV- > erdiaroko -∇h∇- > -VhV- /-VVn.

Bestalde, ez da ahaztu behar antzinaroko izen propio multzo bat azaltzerakoan hizkuntzalariak askotan hobeto ezagutzen dituzten hizkuntzen bitartez saiatzaren direla materiala argitzen. Hori gertatu da akitanierarekin ere zenbait ikerlarien lanetan, Delamarre-k (2007:22) ak. *Andosso* edo *Andosto-ni* (dat.) ind-eur.-zko *ndo-sth₂-o- ‘behean dagoena’ hitz elkartu gisa azaltzen duenean, esaterako. Euskal ikuspuntutik gauzak azaltzen gabiltzanok ere antzeko joeran eror gaitezke, dudarik gabe; eta Akitania zaharraren egoera linguistikoak, hain nahastua izanik, ez du asko laguntzen aukera bat edo kontrakoa hartzearen alde. Hizkuntzalariak kasu horietan aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak aztertu behar ditu, eta ahalik eta mota diferenteeneko argudioen laguntzaz saiatu erabaki bat hartzen: argudio batzuk linguistikoak izango dira, *Andossus* —Delamarreraren iritzia kontra— akitanierari esleitzerakoan, beste batzuk grafikoak, (diogunean *Oxson* izenaren XS grafia hurbilago dagoela euskarazko *otsok* duen txistukaritik galierazko *ukson- ‘idi’ izenak izan zezakeen χ frikari belaretik baino), eta azkenik batzuk inskripzioaren testuinguruarekin zerikusia dutenak (ik. Gorrotxategi & Vallejo argitaratzeak).

2. Bi hizkunza edo gehiago erkatzen direnean beren arteko ahaidetasuna probatzeko asmoz, ezaugarri komunei ematen zaie lehentasuna edo pisua, sailketa sistematikoan ezaugarri *plesiomorfoak* deituko liratekeenak. Akitaniera eta euskara zenbait ezaugarritan bat datozenez gero, elkarren arteko ahaidetasuna segurutzat ematen da. Hona hemen komunean dituzten ezaugarri horietako batzuk (guztiak, azkena izan ezik, klasikoak dira, Mitxelenaren obran aurki daitezkeenak; azken ezaugarria Hagenbacheko xafletan lekukotzen da (Gorrotxategi 2003):

- (2) a. lexikoa: pertsonen arteko erlazioak, animaliak, koloreak eta abar adierazteko hitzak
 b. atzizkiak
 c. /r/ dardarkaria ez da hitz hasieran agertzen.
 d. ez dago /m/ fonema sisteman, eta agertzen diren M grafia bakanak /b/ fonemaren aldaerak dira
 e. /n/ sudurkariaren eta /s/, /ʃ/ txistukariek⁵ duten banaketa, hots, grafia sinplea (=frikaria) hitz hasieran eta grafia geminatua edo bikoitza (=afrikatua) hitz edo oin bukaeran, euskarazko *lenis/fortis* banaketaren parekoa da.
 f. txistukariaren neutralizazioa /r/, /l/ eta, antza denez, /n/-ren atzean.
 g. txistukariaren palatalizazio adierazgarria: *Xembus* /ʃembe/ < *Sembus*

Akitaniera-euskara egokitasunetan badaude gainera beste datu batzuk, ahaidetasuna sendotuaz gain bilakaera diakroniko ezagun eta konketu bat adierazten dutenak: akitanierazko bokalen arteko sudurkari ahula (lenis) hasperen agertzeak euskara historikoaren lehen lekukoetan bilakaeraren norabidea zehaztu eta haren kronologia mugatu egiten du. Ez da (3a) sudurkariaren hasperentzea mota honetako bilakaera bakarra; hona hemen beste batzuk: (b) ak. *-mb-* soinu segida eusk. *-m-* bihurtzea; (c) hitz barneko hasperenduen kopurua bat bakarrera mugatua izatea; (d) hitz elkartu eta eratorrietako lehen osagaiaren itxuraldatzea; (e) artikularen sortzea, eta honen menpeko den deklinabidearen garapena.

- (3) a. ak. *-VnV-* > eusk. *-VhV-*: ak. *Seni-* : eusk. *sehi, sein*
 b. ak. *Sembe-* : eusk. *seme*; ak. *Ombe-* : eusk. (*h*)*ume* (Lergan *Umme*)
 c. ak. *Hahanten, Hontharris*, etab. : eusk. *ilherri*
 d. ak. *Cisson-bonnis* : eusk. *giza-seme*
 e. ak. Ø : eusk. *Larrehederra, Aker Çaltua, Urçia*

Eta ikusirik euskalki guztiak erabat bat datozela bilakaera hauetan, pentsa daiteke antzinaroko akitaniera erdiaroko eta geroako euskararen fase edo aldi zahar bat dela. Zenbait kasutan gainera ibilbidearen tarteko fasea ere lekukotzen da, (3b)ri dagokionez Lergako iskripzioko *Umme-* osagaiak eta (3c)ri dagokionez Donemiliagako Rejako hasperen bat baino gehiagoko lekuizen ugarik, *Harhaia, Hagurahin* edo *Harriolha* bezalakoek, erakusten duten bezala. Hau da, bi muturretako hizkuntza egoerak lotzen dituen katearen mailak balira bezala, onomastikaren arloan, Caro Barojak aspaldi ohartarazi

⁵ Txistukari biak letra bakar baten bitartez idatziak izan ziren: frikariak S-ren bidez eta afrikatuak X(S) dela medio.

zuenez, Erdi Aroko *Unuso*, *Belestar*, *Otsoco*, *Enneco* eta antzeko izen propioak Antzinarakoan jarraipen zuzena diren moduan.

3. Baina ez da ahaztu behar akitanieran sailkapenerako hain garrantzitsua izan den euskararekiko batetortze horren ondoan badaudela zenbait datu nekez uztartu daitezkeenak geroko euskara historikoarenekin. Mitxelena irakaslearen (1964) lanean, helburua akitaniera eta euskararen arteko ahaidetasuna erakustea zelako suguru asko, ak. *Neure-* eusk. *neure* posesiboaren birtutez azaldu zuen, jakinik forma hau lehenagoko *nihaure baten laburdura zela, xvi. mendeko zenbait tokitan artean halaxe laburdurarik gabe lekukotzen zena, agian forma berregina. Izen honek —eta beste halako batzuk— egoera deserosoan jartzen gaitu, ezen ikusirik ez dagoela biderik inguruko hizkuntza bati esleitzeko⁶ onartu behar dugu aldi berean ez dagoela arrazoirik Akitaniako hizkuntza ezezagun baten —eta ez akitanieraren beraren— hitza denik aitortzeko. Hau da, onartu behar da ak. *Neure-* izen osagaia, euk. *neure* posesiboarekin nekez uztartu daitekeen arren eta momentuz azalbide etimologiko garbirik gabe gelditu arren, akitanierazko osagai bat dela hizkuntzaren zenbait informaziorako, fonologia eta morfemen egiturarako, kasu, baliogarri zaiguna.

Akitanieraren, euskara historikoaren eta aitzineuskara klasikoaren parekotasun mailatik atera gabe, badugu beste egokitasun bat hasieratik kritika askorik gabe onartu dena, ak. *Arixo(ni)* : eusk. (*h*)*aritz*, hain zuzen. Parekotasunak, azaleko itxuraz gain, baditu korpusean zuhaitzen eta landaren alor semantikoan eratutako beste paralelo batzuk, latinezko *Fago deo* ‘Pago jainkoari’, ak. *Artehe* edo ak. *Abellionni*, azken hau galierazko *aballo- ‘sagarr(ondo)’-tik eratua baldin badago. Baina euskalkietako lekukotasunen birtutez berreraikitako forma, *hareitz, hartzen badugu kontutan, deigarria egiten da ikustea ak. *Arixo*-k alde batetik ez duela hitz hasierako hasperenik eta bestetik diptongo zaharra (Bizkaieran arkaismo gisa mantendu dena) > *i* bihurtu duela; beste modu batera esanda, Euskara Batu Zaharraren (EBZren) ondoko bilakaera dialektalak, (mendebaldeko euskalkietan izan ezik gainerakoetan *-ei- > -i bihurtzea, eta erdialdeko euskalkietako hasperen galtzea) mila urte edo mila eta bostehun urte inguru lehenago kunplituak zeudela. Goian aipatu *Neure*-ren kasuan bezala, galierak ez du azalbide onik ematen, Delamarrek (2007: 26) proposaturiko *(p)ari-st_h-o ‘qui se tient devant’ berreraikitako formak ez dituelako ez izenaren deklinabide aldaerak ez eta -st- > -ts- bilakaera (haren ustez *Andosto*-n mantendu dena) azaltzen. Baina aurreko kasuan ez bezala, agian hemen egokitasunak eskatzen duen kostua asumitu daiteke, izenaren agerraldi bat, bederen, beste modu batera irakurtzen bada. Gorrotxategiren (1984: 306-7) arabera hiru lekuko ditu jainko

⁶ Galierakin antzekotasun izpiren bat izan balu, aspalditik zeltatzat hartua izango zuketzen munduko zeltista guztiek.



© Gorrotxategi

1. IRUDIA

Arexo jaikoari eskainitako aldarea. Bagnères de Luchongo museoan

izen honek, bi osorik gorde direnak eta hirugarrena, hautsita eta orain galduta,]rix[irakurri zutena. Lehen biak Loudenviellen aurkitu ziren eta hirugarrena, ostera, St-Pé-d'Ardet-en; arrazoi honengatik eta inskripzioaren egoerarengatik ezin da ziurtatu jainko beraren aipamena denik. Paris ondoko St. German-en-Laye-ko museoan gordetzen den aldarean *Marti Arixon*i irakurtzen da, garbi, baina Luchongo museoakoaren irakurketa (*Arixo deo*), ordea, ez da eman den bezain garbia eta segurua. Hasteko esan behar da Riccik aspaldi ohartarazi zuela letra bat falta zitekeela izenaren hasieran, C- bat haren ustez. Museora 2011ko apirilean egindako bisitan harria ikertzeko aukera izan nuenean konturatu nintzen (-)areixo irakurri zitekeela, E eta I le-tren arteko lotura dela medio, edo gehien jota (-)arexo (ik. 1. irudia). Irakurketa berri honek, batez ere harriaren hutsunea H batez (C bat baino egokiago litzatekeena, azken hau guztiz baztertu gabe) betetzen badugu, goian aipatu eragozpen guztiak gaindituko lituzke; onartu behar genuke akitanieran bertan aldaera berri bat, diptongoa sinplifikatu eta hasperena markatu ez duena, baina ez dut uste problema hauek gaindituezinezkoak direnik egokitasuna onartua ahal izateko.⁷

4. Akitanierazko korpus onomastikoan izenen aldaerak identifikatzea eta beren arteko harremanak azaltzea oso interesgarria litzateke formen eta hizkuntzaren beraren bilakaeraren zenbait atal azaltzeko, nahiz eta izen propioek erakusten duten segurantzaz ez den beti behar bezain ona (ik. § 1). Aipatu dugu lehen (2g) *Xembus* eta *Sembusen* artekoa, nondik pentsa daitekeen akitanierak ezagutzen zuela K.o. III. menderako Erdi Arotik gaurko eguneraino euskarak normaltzat izan duen palatalizazio adierazgarria, Oñederrak (1990) asmatutako terminoa erabiliz. Mitxelenak (1954: 451) *Talsco*-eta *Halsco*-ren artekoa aipatu zuen, aldaera bakoitzaren hedapen desberdina (lehen Gaskuinako lautadan eta bigarrena Pirinioetako lurretan) agerian jarritz eta kronologiaren aldetik bata arkaismo eta bestea berrikuntza gisa azalduz (T- > H-).⁸

Bi adibide gehiago ukituko ditut hemen. Gizonezkoen izenen artean *Andossus*, *Andoxsus* da dudarik gabe ugariena. Txistukariaren idazteko modua orain alde batera utzita, badaude lekuko batzuk ND soinu segidaren orde-z NN dutenak: *Annosus*; ez da kasu bakarra, ezen -nd-dun *Andere* eta eratorrien ondoan *Annereni* (dat.) ere, behin bederen, lekukotzen da. Euskarak ez du soinu asimilazio hau ezagutu; bai ordea antzekoa den ezpainkariena (-mb- > -mm-), antzinatean Lergako inskripzioko *Umme*- osagaiak erakusten

⁷ Nork daki dedikatzailea galiar jatorrikoa izateari ez ote dion zor hasperen ezak. Haren izenaren arabera, *Erianos Seriani*, nominatiboak ez du latinen desinentzia (-us, alegia), galierarena baizik.

⁸ Aldaketa honek herskarien sistema zaharra aldatuko zuen, hots, hitz hasierako herskari bortitzak hasperen bihurtu ondoren, toki horretan ozenak ez eze hasperena eta herskari ahulen ondorengoak (ahostunak) aurkituko lirateke bakarrik.

duena, eta gerora euskara historikoan sinplifikatuta agertuko dena.⁹ Baina *nd-* > *-nn-* aldaketa euskaraz gertatu ez arren, gaskoieraren ezaugarri nabarienetakoa da, ikerle batzuen ustez nahiko goiz eman zena. Inskripzio hauek ondo erakusten dute II. edo III. mendean aldaketa abian zela akitaniera-latinez elebidunak zirenen artean eta ezin uka akitanierazko elebakarren artean ere halako ahozkerarik ez zenik. Hala balitz, geroko euskarak aldaera berritzailea baztertuko zuen eta antzeman daitekeen EBZeak bakarrik *-nd-* itxurazkoak orokortuko ziren.

Hasperenaren presentzia akitanierak eta euskarak komunean duten ezaugarri garbienetakoa da, baina kognado batzuetan egokitasunak zuzenak badira ere (4a), beste hitz batzuetan, ustezko kognadoak izan daitezkeenetan, detailezko desadostasunak daude (4b).

- (4) a. ak. *Hars-* : eusk. *hartz*; *Bihoxs-* : *bihotz*; *Heraus-* : *herauts*;
Hiss- : *hits*; *Lohi-* : *lohi*; *Sahar-* : *zahar*
 b. ak. *Aher-* : eusk. *akher*; *Hanna-* : *anaia*; *Areixo/Arixo* : *haritz*;
Umme- : *hume*

Pentsa daiteke zenbait kasutan —hasperenik eza akitanieraz denean eta batez ere adibide gutxiko izenetan—, grafia kontua izan daitekeela soilik, baina alderantzizkoetan, hots, hasperena euskarazko hitzean falta denean, antzinarotik erdiarora bitartean, EBZren garaian alegia, nolabaiteko galera gertatu dela onartu behar da. Galera eta desadostasun hauen arrazoiak ez dira errazak antzematen.

Akitanierazko korpusean bertan antzeman daitezkeen aldaerek edo zenbait izenen arteko erlazioek pentsa arazten dute hasperenaren egoera ez zela egonkorra. Mitxelenak (1954: 437) ak. *Ando(x)sus* eta eusk. *handi*-ren arteko erlazioa onartzen bazuen ere, Bähr-ek (1948: 41) hasperenik eza arrazoi nagusitzat hartuz, nahiago zuen lehenengo osagaia galierazko *ande*-rekin lotzea. Hagenbacheko xafila batek, ordea, izena H-rekin lekukotzen du (*Handos*), hizkuntzaren barruan aldaerak zeudela erakutsiz. Zaila da jakitea *Andos*- hasperen gabeko forma akitanieraren beraren bilakaera erregular baten ondorioa den edo galieraren eraginez eta ukimenez sorturiko forma.¹⁰

⁹ Orduko euskarak (Lakarraren terminologian Aintzin Euskara Modernoa) sisteman /m/ fonemarik ez zuenez gero, aldaketa hau ez da batuketa fonologiko bat, *-nd-* > *-nn-* izango litzatekeen bezala, sistemak bazuelako bere baitan /N/ fonema.

¹⁰ Uste dut *Andossusek* gizonezkoen izenetan *Anderek* emakumezkoenetan dituen esanahia eta funtzioa betetzen dituela. Askok uste dute eusk. *andere*-ren jatorria zelta hizkuntzetan dagoela, irl. zah. *ander* ‘emakume gaztea’, gales *anneir* ‘biga’ eta gainerakoekin uztartuz. Baina nekez baztertu daiteke, alde batetik, ak. *Anderek* ak. *Erhe* emakume izenarekin duen lotura estua eta, bestetik, Erdi Aroko *andosco*-k ‘bi edo hiru urteko arkumea’ ak. *Andossus* izenarekin duena. Ematen du hitz berberak edo oso hurbilekoak erabiltzen zirela pertsonak eta animaliak izendatzeko.

Goian (4a) esan bezala ak. *Hars-* (*Hars-i* gen. izen simplean nahiz *Harspi*, *Harsori* bezalako eratorrietan) eusk. *hartz* hitzaren kognadotzat hartu dute ikerlari guztiek, bat datozelako hitz hasierako *h*-ren presentzian eta bukaerako txistukariaren portaeran. Bestalde, *Astoilunno* (dat.) jainko izenaren lehen zatian askok eusk. *asto* ikusi dute, nahiz eta Oihenartek eta Sauguis-ek aldaera zaharragoa den *arsto* lekukotu; azken honek bideratu du jatorrizko forma *hartz*-en eratorri gisa, hots, **hartz-to*, azaltzea (ik. Mitxelena 1989 = OEH s.v. *asto*). Adibide honetan akitanierazko lekukoak euskaraz orokortuko den aldaera berritzailearen bilakaera erakusten du, ez aldaera arkaikoa. Duela gutxi Argein-en (Castillon-de-Couserans) agertutako aldare batean *Arsilunno* (dat) jainkoaren izena irakur daiteke (ik. 2. irudia),



2. IRUDIA

Arsilunno jainkoari eskainitako aldarea: Argeingo elizako horman

Asto-ilunno jainkoarekin begibistako lotura duena: azken hau haren forma eratorritzat har daiteke, hau da *ars + to, *Alardosto* (Gaud) *Aladoss(i)*-rena den bezalaxe. Beharbada, lekuko berri honek *asto* eta *arsto*-ren arteko lotura argitu digu, baina hasierako H-ren galera (hitzak ak. *Hars-* : eusk. *hartz* badu jatorritzat) argitu gabe dago: agian Lakarrak eusk. *otso*-rentzat suposatu duen bilakaeraren antzekoa, hau da *hor-tso > *hoh-tso > *ohtso > otso?¹¹ Baina gure kasuan lehen osagaiaren -r berandu arte mantendu da, ez bada analo-giazko forma berregina.

5. Goiko adibideek erakusten dute akitaniera eta euskararen arteko erla-zioak ez direla beti denboraren ardatzean hizkuntza berberaren forma zahar edo arkaiko eta forma berrien artekoak bezalakoak, batzuetan akitanierazko hitzak euskarak lekukotzen dituenak baino berritzaileagoak direlako, edo gu-txienez, aldaera berritzailea ere ezagutzen duelako. Ez da ahaztu behar ikus-pegia honetarako akitaniera eta euskara zaharraren lurralde osoko lekuko guztiak erabili direla, Couseransen hasi eta Lizarra eta Ebro ibairainokoak, euskara historikoarena baino lurralde askoz handiagoa okupatzen dutena. Nekez pentsa daiteke hizkuntza, bat eta bakarra izanda ere, ez zela dialek-totan zatituta egongo, nahiz eta honen arrastoak oso zailak izan dokumenta-zioan antzemanten.

Euskara historikoak antzinako akitanieran du bere sustraia, ordurako le-kukotzen direlako beranduagoko zenbait ezaugarri, palatalizazio adierazga-rria, esaterako. Baina akitanieraren barneko zenbait aldaera —nahiz lurraldez lurraldekoak nahiz gizartearen mailen arabekoak izan, bilakaeraren ikus-puntutik batzuk arkaismoak eta beste batzuk forma berritzaileak izan—, ez ziren beranduagoko euskarara igaro, erdiaroko mende ilunetan eratu zen eus-kara komunak (Mitxelena 1981 eta Lakarraren 2014 EBZ) halako iragazki moduko bat ezarri zuelako lehenagotik zetozen aukera eta aldaeretan. An-tzeko kontu bat antzeman daiteke toponimiaren eta morfologiaren kasuan: akitaniera eta euskara zaharraren eremuan lekuizenak eratzeko erabilitako -os atzizkia ez zen geroko euskarara igaro, haren ordeztan antzinatean testigan-tzarik ez duten atzizki berri batzuk sortu ziren, -aga eta -eta beriziki. Euskal izen deklinabidea eratzeko orduan badirudi akitanieraz soma daitekeen dati-bozko -he /-e atzizkiak ez duela jarraipen zuzenik euskara historikoan. Egia da Iruxon atzizki normalez agertzen den *Larahe* jainkoa Mendigorriko harri batean *Larrah*i agertzen dela, baina kasu honetan ezin da latinaren eragina zeharo saihestu.

Hemen akitanierak euskara historikoarekin eta euskalkietatik berreraiki-tako EBZrekin dituen harreman batzuk —ez guztiak— tratatu ditugu, baina edonork ikusten du akitanieraren testigantza garrantzi handikoa dela ain-

¹¹ Bilakaera guzti hau beteta egongo litzateke gure Eraren lehen mendeetarako, ak. *Oxson* izenak erakusten duen bezala.

tzineuskara eta EBZren arteko bilakaera argitzeko orduan, hark eskaintzen duen materiala, hasieran esan bezala, mugatua izan arren. Goian aipatu dugu hasperenaren kasua. Oso interesgarria litzateke ikertzea zer gertatu den hitz hasierako herskariekin, batez ere aintzineuskarazko *d-rekin, ezen ematen du haren presentzia eskasa izan arren¹² badaudela zenbait adibide, *Doxxi* esaterako, fonema posizio horretan mantendu zutenak (Gorrotxategi 2003: 32), nahiz eta *Lohi*- osagaiak erakutsi *d-* > *l-* bilakaera emana edo abian zela.

Aipamena

- Bähr, Gerhard. 1948. *Baskisch und Iberisch. Eusko Jakintza* aldizkariaren separata. Baiona.
- Delamarre, Xavier. 2007. *Noms de personnes celtiques dans l'épigraphie classique*. Paris: Éditions Errance.
- Gorrotxategi, Joakin. 1984. *Onomástica indígena de Aquitania*. Bilbao: UPV/EHU.
- Gorrotxategi, Joakin. 2003. «Las placas votivas de plata de origen aquitano halladas en Hagenbach (Renania-Palatinado, Alemania)». *Revue Aquitania* 19, 25-47.
- Gorrotxategi, Joakin. 2008. «Lenguas y Genes: aplicaciones a la prehistoria de la lengua vasca», *Homenaje a Ignacio Barandiarán. Veleia* 24-25, 1185-1201.
- Gorrotxategi, Joakin. 2013. «Hispania indoeuropea y no indoeuropea». In E. Blasco Ferrer et al (arg.), *Iberia e Sardegna. Legami linguistici, archeologici e genetici dal Mesolitico all'Età del Bronzo*. Firenze: Le Monnier Università / Studi. 47-64.
- Gorrotxategi, Joakin & Vallejo, José M. (agertzear). «Langues fragmentaires et aires onomastiques: le cas de la Lusitanie et l'Aquitaine», Colloque sur «Les Langues d'Attestation fragmentaire» Université de Rouen, 2012ko ekainaren 25-27.
- Lafon, René. 1956. «Pour l'étude de la langue aquitaine». In *Actes du deuxième Congrès Int. d'études pyrénéennes*. Tome 8, Section 7: Philologie. Toulouse: CNRS. 53-63.
- Lakarra, Joseba A. 2010. «Haches, diptongos y otros detalles de alguna importancia: notas sobre numerales (proto)vascos y comparación vasco-ibérica (con un apéndice sobre hiri y otro sobre bat-bi)». *Veleia* 27, 191-238.
- Lakarra, Joseba A. 2014. «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz». In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina. ASJUren Gehigarriak LXIX*. Leioa: UPV/EHU. 155-241.
- Luchaire, Achille. 1877. «Les origines linguistiques de l'Aquitaine», *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 349-423.
- Mitxelena, Koldo. 1954. «De onomástica aquitana». *Pirineos* 10, 409-458 [= OC V, 197-243].
- Mitxelena, Koldo. 1964. *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro [= OC XII, 1-197].
- Mitxelena, Koldo. 1981. «Lengua común y dialectos vascos», *ASJU* 15, 291-313 [= OC VII, 517-543].

¹² *Dannonia*, *Donni*, *Dunomagius* galierazko izenak dira.

- Mitxelena, Koldo. 1989. OEH = *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbao: Euskaltzaindia-Desclée de Brouwer-Mensajero.
- Mitxelena, Koldo. 2011. OC = *Obras Completas*. XV tomo. Donostia / Gasteiz: ASJU / UPV/EHU.
- Oñederra, M. Lourdes. 1990. *Euskal fonologia: palatalizazioa, asimilazioa eta hots sinbolismoa*. Bilbao: UPV/EHU.
- Orduña, Eduardo. 2011. «Los numerales ibéricos y el protovasco». *Veleia* 28, 125-139.
- Orduña, Eduardo. 2013. «Los numerales ibéricos y el vascoiberismo». *Palaeohispanica* 13, 517-529.
- Villar, Francisco. 2014. *Indoeuropeos, iberos, vascos y sus parientes. Estratigrafía y cronología de las poblaciones prehistóricas*. Salamanca: Universidad de Salamanca.